

LETREN NAZIOARTEKO JAIALDIA  
FESTIVAL INTERNACIONAL DE LAS LETRAS  
INTERNATIONAL LITERATURE FESTIVAL



**GUTUN  
ZURIA  
BILBAO**

**28.03 \_\_\_\_\_ 01.04.2023**



## AURKIBIDEA



- AURKEZPEA
- BBK GUTUN ZURIA BILBAO SARIAK
- IKUS-ENTZUNEZKO EKITALDIA
- AUDITORIOKO ELKARRIZKETAK
- BASTIDA ARETOKO TOPAKETA
- ARGITALETXEN AURKEZPENA
- JARDUERA OSAGARRIAK
- LIBURUDENDAZ
- AUTOREAK
- SARREREN SALMENTA
- KOMUNIKAZIO KANALAK
- KOLABORATZAILEAK



## AURKEZPENA

### IDATZI / EDITATU / IRAKURRI

**Gutun Zuria Bilbao. Letren Nazioarteko Jaialdia** hitzaren inguruko urteroko topagunea da, fikzioaren, poesiaren, saiakeraren, nobelaren bidez egina, eta literatura garaikidearen erreferente eta egungo narratibaren ahots berriak biltzen dituena, beren sorkuntza-prozesuak publikoarekin partekatuzeko.

*Idatzi / Editatu / Irakurri* izenburuarekin, 2023ko edizioak gizartearen ezaugarri diren aldiberekotasun eta ugaritasunaren premisa hartzen du abiapuntu, eta idazketari, edizioari eta irakurketari begiratzen die praktika beraren zati gisa hartuta.

Horrela, jaialdiak modu berriak islatzen ditu literatura asmatu, ekoitzi, banatu, komunikatu eta kontsumitzeko. Betiere, Azkuna Zentroak hegemonikoak eta homogoneoak ez diren formatu eta edukiak hartzeko eta bultzatzeko egin duen apustutik abiatuta. Horregatik, aurtengo programan nabarmentzen diren egile batzuei literatura-prozesu osoa ardura zaie, idazketatik aktibismora, estudiotik tailerrera, idazketatik komunikaziora, fikziotik ediziora, bakarkako lanetik abian jartze kolektibora.

Gutun Zuria Bilbao gune dibertsoa da, zeharkakoa eta sorkuntza garaikideari irekia, ez du hizkuntza-kuotarik, ezta publiko eta sormen-diziplinako kuotarik ere, eta euskal kulturak garrantzi nabarmena du bertan.

Jaialdian, hogeita hamar jarduera baino gehiago egingo dira Azkuna Zentroan, hainbat formatutan, egun osoan zehar. Idazleekin solasaldiak izateaz gain, hitzaldi musikatuak, eztabaidak, tailer artistikoak, topaketak eskola-publikoarekin eta argitalpenen aurkezpenak ere izango dira.

BBK Gutun Zuria Bilbao Saria Euskal Herriko eta nazioarteko literatura-sorkuntzako bi erreferenteren emango zaie aurtan: Anjel Lertxundi eta Cristina Rivera Garzari, gizartearen duten arrastoagatik lotuta dauden bi literatura-ibilbide desberdin aitortzeko.

Gutun Zuria Bilbaoren beste edizio hau hitzetik abiatzen diren jardueren artxipelago bat izango da, elkarrekin egoteko, hitz egiteko, eztabaidatzeko, ikasteko eta arrastoa uzteko kultura garaikidearen inguruan.

### 15 edizio

Aurtan XV. Edizioa beteko duen letren hitzordu hau, 2010ean Azkuna Zentroak berak bere ateak ireki aurretik ere sortu zen. 2018ra arte, Jaialdiak antzeko formatua izan zuen edizio guztietan, Auditorioan izaten zituzten egileen arteko elkarrizketak ardatz hartuta. 2019an, aldiz, erlaldatu egin zen. Publiko berriei, beste formatu batzuei irekitzeko, Azkuna Zentroaren misio berriaren ildotik, alegia, gizartearen eta kultura garaikidearen arteko konektore bezala.



# PRENTSA DOSSIERRA

---

Handik aurrera, Gutun Zurian, hitzak liburuetakako orrialdeetatik at doa eta gainerako diziplina artistikoekin hitz egiten du. Artistek artearen aukera narratiboak ezagutzeko sortutako tailerrekin, soinua eta hitza nahasten dituzten kontzertuekin, argialetxe independenteen eta ekoizpen literarioko agenteen topaketekin... Sortzaileen konplizitatekin sortzen diren esperientziak, letren inguruan eztabaidatzera eta ikastera edota arrastoa uztera gonbidatzen du. Jaialdia erdigune osoan egiten da: Auditoriotik Mediateka BBKra, Atriora edo Lantegira. Ideien Laborategia; goizeko, arratsaldeko eta gaueko programazioarekin.

2022tik aurrera, Azkuna Zentroaren Letren Nazioarteko Jaialdia Gutun Zuria Bilbao da, hiriaren bereizgarri bezala. Gainera, edizio honetan, Azkuna Zentroak BBK Gutun Zuria Bilbao Saria sortu du: proiektu kultural, ibilbide edo obra espezifikoko garrantzitsu baten aitortpena, bai Euskadin bai nazioartean.



# BBK GUTUN ZURIA BILBAO SARIAK

## OSTIRALA, MARTXOAK 17

### 11:00 KUBO BALTZA. LANTEGIA 1. SARRERAK DOHAINIK

Martxoaren 17an, BBK Gutun Zuria Bilbao Saria emango da. 2022ko edizioan sortu zen, eta euskal eta nazioarteko literaturako funtsezko eragileen sorkuntza-lana saritzen du, ibilbide, obra espezifiko edo kultura-proiektu garrantzitsu baten aitorten gisa.

2023an, jaialdiaren ohorezko makila euskal eta nazioarteko literatura-sorkuntzako bi erreferenterentzat izango da: Anjel Lertxundi eta Cristina Rivera Garzarentzat. Ohorezko makilaz gain, saria irabazleei emandako gutun zuri baten gisakoa izango da, hurrengo urteko jaialdiko edizioan inplikatu eta parte har dezaten, orduan, aldi berean izango baitira ohorezko gonbidatu eta beste egile, hitzaldi edo programa batzuen anfitrioi.

#### **Cristina Rivera Garza**

Eleberrigile, poeta, ipuingile eta saiakeragilea, Cristina Rivera Garza Mexikoko literatura garaikideko ahotsik garrantzitsuenetako bat da, eta Sor Juana Inés de la Cruz Nazioarteko Saria bi aldiz jaso duen bakarra. Houstongo Unibertsitateko espainierazko Idazketa Sortzaileko doktoregoa sortu zuen. Bere lanen artean, *La cresta de Ilión* (Tránsito argitaletxea, 2020) nabarmentzen da. Istorio kezagarria da, indarkeriak gorputzetan nola eragiten duen erakusteko balio dio, eta zalantzan jartzen ditu errealitatearen mugak eta generoaren markatzaileak. Bere azken liburuak, *El invencible verano de Liliana* (Random House, 2021) izenekoak, 2021eko José Donoso Letren Iberoamerikako Saria irabazi du Txilen, eta Xavier Villaurrutia Saria Mexikon. Liliana Rivera Garzaren istorioa da: feminizidioaren biktima, 20 urterekin bere bikotekideak eraila, eta bere arrebaren ahotsez kontatua. Memoriak berreskuratu, eta Lilianarentzat eta guztientzat justizia bilatzen duen nobela.

#### **Anjel Lertxundi**

Haur- eta gazte-literaturako, eleberri eta saiakerako 50 lan baino gehiagorekin, Anjel Lertxundi erreferentea da euskarazko literaturan. Idazlea, literatura-kritikaria, kazetaria eta gidoilaria. Bere lanik aipagarrien artean, *Otto Pette* (Alberdania, 1994) eleberria dago, harekin 1994an Literaturako Sari Nazionaleko finalista izan baitzen narratiba modalitatean.

*Eskarmentuaren paperak* lanarekin 2010eko Saiakerako Sari Nazionala jaso zuen, eta bi aldiz irabazi zuen Literaturako Euskadi Saria: 1983an *Hamaseigarrenean aidanez* (Erein, 1983) eta 2001ean *Argizariaren egunak* (Alberdania, 1998) liburuekin. Halaber, Kritikaren Sari Nazionala jaso zuen 1983an eta 1991n. *Haltzaren muinoa* eleberriarekin (Elkarlanean – Elkar argitaletxea, 2020) Haur Literaturako Euskadi Saria irabazi zuen (2021). Bere ibilbide literarioaren aitorten gisa, Rosalia de Castro saria jaso du. Bere azken argitalpenak *Itzuliz usu begiak* (Alberdania, 2019) eta *Desertuan behatxuloa* (Alberdania, 2022) dira.



## 18:30 KUBO BALTZA. LANTEGIA 1

**Solasaldia: Cristina Rivera Garza & Isabel de Neverán**

***Porque está todavía en el cuerpo***

Gutun Zuria Bilbao BBK Saria jaso du Cristina Rivera Garza idazle eta narratzaile mexikarrak, eta Isabel de Naverán, gaur egun Azkuna Zentroaren Ikertzailea kidea den dantzako kuradorea eta idazlearekin hitz egingo du. Elkarrizketa horretan, biek euren biografiak eta lanak gurutzatuko dituzte, galeraz markatuak, dolua beste estatutu batera eramateko gai izango direnak.

Idazketa orainaldi partekatu bat sortzeko leku gisa aurkezten da, eta alderdi biografikoa beste batzuek ere hitz egiteko leku gisa. Eta beste batzuekin.

Rivera Garzak eta De Naveranek literaturak oroimena ez ezik itzulera ere gaitzen duen lurralde batera gonbidatuko gaituzte. Bizitza esperimentatu delako idazten dela ikusten utziz, eta literaturak kanpoan zeudela uste zuten ahots batzuk agertzea posible egin dezakeelakoan.

## **IKUS-ENTZUNEZKO EKITALDIA**

### ASTEARTEA, MARTXOAK 28

**19:00. Abraham Boba. *Esto no es una canción***

Abraham Boba, David Cobasek (Vigo, 1975) orain dela hamarkada bat baino gehiagotik musikarekin lotutako lan guztiak sinatzeko erabiltzen duen pseudonimoa da.

*Esto no es una canción* León Benavente taldeko abeslariaren lehen poema-liburua; ez da poesia-errezitaldi bat, ikus-entzunezko ikuskizun bat baizik. Abraham Bobak bere poemak soinu-oinarriekin nahasteaz gain, bere testuak show honetarako konposatutako pianoko hiru abestirekin indartzen ditu; gainera, Lois Patiño zinemagile galiziarren ikusizko proiektzioa gehitzen du. Abraham, eszenan bakarrik dagoelarik, ikusleari zuzentzen zaio 60 minututan zehar, publikotik intimora doan barne-bidaia hau kontatzen duenarentzat; pertsona zorabiatu baten gogoeta, pertsona bakoitzaren barruan entzuten dena argitara ateratzen duena. Egilearen arabera, "isiltasunetik adimen artifizialerako bidaia da, dinosaurotik partikulen azeleragailura eta Pleistozenotik psikoanalisiara".

## AUDITORIOKO ELKARRIZKETAK

### ASTEARTEA, MARTXOAK 28

**17:30. Solasaldia: Anjel Lertxundi Adan Kovacsicsekin**

***Lecturas de los demás, lecturas de mí mismo***

Anjel Lertxundiren literaturan, egunerokotasunezko gaietatik (*Vete al infierno, cariño*), fikziozko pertsonaiekin egindako birsortze historikoetatik (*Otto Pette*) eta euskal kondairekin lotutako mito juduetaraino (*Un final para Nora*) biltzen dira. Erabiltzen dituen erregistroen aniztasunak bere obrek daramaten iturriei buruz galdetzeraz eramaten dute, baita horiek idazkera bihurtzeko prozesuaz ere.

Irakurtzeak idaztera eta norberak idatzitakoa irakurtzera darama, baita Adan Kovacsics, itzultzaile, irakurle eta besteen interpretearen kasuan ere. Adam Kovacsics *Guerra y Lenguaje*, Lehen Mundu Gerran austrohungariar idazleen propaganda-testuen irakurketa eta hitzen itzulgarritasunaren interpretazioa bezalako saiakeraren egilea da.

### ASTEARTEA, MARTXOAK 29

**19:00. Solasaldia: Manuel Rivas Gonçalo M. Tavaresekin**

***Otra manera, otra marea***

Irakurleak eta urpeko istorioak bilatzen dituzten bi idazle. Sakoneran murgiltzen diren bi hizkuntza eta, aldi berean, gainazalera irtetzerakoan, berdinak eta desberdinak direnak. Gutxituta dauden bi hizkuntza (portugesak eta galiziera), era berean, horien bidez mundua handitzen dutenak. Bi autore ospetsu, itsasertzean hasten direnak. Literatura elkar konkistatzeko mareatzat hartzen duten bi eskritura, baina kolonizaziorik gabea.

### OSTEGUNA, MARTXOAK 30

**19:00. Solasaldia: Pol Guasch, Munir Hachemi, Leire Bilbao, Sara Torres**

***La poesía no quiere adeptos, quiere amantes***

Idazmena praktika kritiko bat bezala garatzen duten poeten mahaia da hau. Alerta egoera batean egongo balira bezala idazten duten ibilbide liluragarria eta errekonozimendu handia duten hainbat belaunalditako poeten mahaia da hau. Ama edo alaba izatea, gerraren eta bakearen krudelkeria, lesbianen gorputz maiteminduak edo maitasun-diskurtsoa ez dago kapsulatuta. Idazketaren bidez deitzen gaituzte eta hartzen duten jarrera zein hartutako jarrera hori zelan eragiten digutenaren kezka sorrarazten dute. Testua bakarrik existitzen da irakurtzen denean, eta orduan, harreman dinamiko horretan, bere balioa ematen zaio. Poesiaren kasuan, agerikoa da poemak irakurtzera bultzatzen duela. Mahai honetan poetak daude, inplikatzeko munduak erakutsiko dizkigutenak.

### OSTIRALA, MARTXOAK 31

**19:00. Solasaldia: Juan Pablo Villalobos eta Elvira Navarro Iván de la Nuezerekin**

***La ciudad mutante***

Nola kontatu hiria bere giza eraldaketatik? Nola ikusarazi hiri garaikidearen soinu homogeneoaren B aldea? Nola azalerratu globalizazioaren historia minimoak? Nola eman

litarioaren gutuna legeek ukatzen dieten izaki migratzaileei? Nola idatzi, editatu eta irakurri mundua alderantziz?

## **LARUNBATA, APIRILAK 1**

**17:30. Katixa Agirre eta Eider Rodriguez**

***Idazle hedatua***

Euskal idazleak ondo daki kimera hutsa dela bere marfil-dorrean lan egiten duen idazlearen irudia. Hasieratik dago ohituta askotariko generoetan lan egitera, itzultzera, editatzera, ekitaldiak antolatuzera, eskolak ematera... Idazle ofizio hedatu hori izango dute abiapuntu Eider Rodriguezek eta Katixa Agirrek, eta beren ibilbidean argitaratutako azkeneko lanez jardungo zaizkigu halaber. Izan ere, Rodriguezek Eraikuntzarako materiala argitaratu zuen 2021ean eta Katixa Agirrek Berriz zentauro 2022an, azken boladako nobela nabarmenetako bi.

## **LARUNBATA, APIRILAK 1**

**19:00. Solasaldia: Bob Pop Alba Carballalarekin**

***Contra la sinopsis: las historias no importan***

Liburu bat ez da albiste bat, prozedura sorta bat baizik. Buru-kolpeen museo txiki bat, zeinetatik susmatzen dugun artea "nola"ean dagoela, eta ez "zer"ean. Izan ere, benetan axola duena ez da gertatu zena baizik eta tonua, begirada, ikuspuntua, idazkeran eta irakurkean.

# **BASTIDA ARETOKO TOPAKETAK**

## **ASTEAZKENA, MARTXOAK 29**

**17:30. Iban Zaldua eta Miren Narbaiza**

***La reescritura sonora***

Iban Zalduak bere *Ipuina Engainua* kontakizun liburutik musikako oihartzun esanguratsuenekin osatutako tarteak aukeratu ditu, MICEk (Miren Arbiza) soinu bidezko irakurketa edo berridazketa eman diezaien. Zalduak, rock musikari buruzko ezagutza sakona du. 2011n *Biodiskografiak* argitaratu zuen historiako 39 albumeko bilduma, The Beatlesen *Revolver* lanarekin hasita eta Paul Wellerren *22 dreams* diskoarekin amaiutz. Bakoitzak bere kontakizunetako bat inspiratu zuen, batzuk esperientzietan inspiratua eta beste batzuetan aldiz, fikzio hutsa. Bestalde, MICEren ahotsa, gitarra eta teklatuak, Miren Nabaizaren izen artistikoa 2017tik, melodien bidez istorioak kontatzeko duen trebetasunagatik nabarmendu dira.

## **OSTEGUNA, MARTXOAK 30**

**17:30. Uxue Apaolaza eta Irene Pujadas Beñat Sarasolarekin**

***Kontaidazu ipuin bat***

Bi ipuin idazle izango dira saio honetako protagonistak. Apaolazaren Bihurguneko nasa (2021) eta Pujadasen Els desperfectes (Puskak, 2021) dira bere azken liburuen izenburuak, eta haiek izango dira elkarrizketa honen muina. Gainera, egile bakoitzaren ikuspegi literarioa





ezagutzeko aukera izango dugu, baita ipuinak duen lekuari buruz hausnartzeko ere. Izan ere, batzuen ustez, sistema literario ez-hegemoniko batean idazteak beste aukera batzuk eskaintzen ditu, ipuina bezalako generoei heltzeko. Hala izango da?

## **OSTIRALA, MARTXOAK 31**

**17:30. Jon Gerediaga eta Iñigo Martínez**

***Ahopean esan / En voz baja***



Ondo legoke une batez egunerokotasunaren zaratatik ihes egin ahal izatea. Leku isilago bat bilatu eta bertan geratzea. Zeregin eta aginte-ahots askoren artean galdu beharrean, bizitza kontenplatiboago baten alde jartzea, hitz egiteko modu lasaiago baten alde. Eta ahopeka hitz egitea.

# ARGITALETXEN AURKEZPENA

**MARTXOAK 30. OSTEGUNA 16:00ETAN. KUBO BALTZA**

## AZ ARGITALPENAK

Gutun Zuria Bilbaon, edizioak presentzia handia du. Aurten, argitalpen aurkezpenak Kubo Baltzan egingo dira. Programan, Azkuna Zentroak ekoiztutako argitalpenen erakusketa nabarmentzen da, praktika artistiko garaikidea osatzen baitute, hura ezagutu eta zabaltzeko.

### **Liburua - *Somewhere from here to heaven* katalogoa**

Garbiñe Ortega komisarioa den eta Azkuna Zentroak ekoiztutako *Somewhere form here to heaven* erakusketatik abiatuta, liburu katalogo hau Bruce Baillie, 60ko hamarkadako zinemagile garrantzitsuenetako bat, miresteko eta aintzatesteko gune gisa sortu da.

Kasu batzuetan argitaratu ez diren testuak ikusiko dira, historikoak direnak beste batzuetan... Ipar Amerikako abangoardia zinematografikoaren sortzaile garrantzitsuenetako baten inguruan hitz egiten du katalogo hau.

Egileak:

Erika Balsom, Steve anker, Scott McDonald, Jonas Mekas, Peter Hutton, Max Goldberg, Andréa Picard, JP Sniadecki, Apichatpong, Weerasethakul, Ana Vaz, Ben Rivers eta Eduardo Williams.

### ***Metakoadernoak. Azkuna Zentroak – Alhóndiga Bilbaok sortutako koadernoak***

Zentroan egiten diren proiektuetatik haratago doazen gaiak jasotzen dira Azkuna Zentroak sortutako koaderno hauetan, baita Babestu, Sorkuntzari Laguntzeko Programa, ekimenaren esparruan garatutako proposamen artistikoko beste formatu batzuk ere.

AZ argitalpenen bilduma Berria Scriptbarik, Ander Perez Puelles, M. Benito eta Macarena Recuerda Shepherdren proiektuekin sortu da.

### ***Revista Stock. Artea, pentsamendua eta kultura garaikidea***

Stock, sorkuntza eta ikerketa artistikoaren inguruko ezagutza zabaltzeko argitalpen-plataforma gisa sortu zen, tokiko, estatuko eta nazioarteko testuinguruan artisten eta sortzaileen ikusgarritasuna handitzeko; programazioa hedatzeko, Azkuna Zentroaren substratu kulturalaren geruza bat gehiago sortuz; eta ezagutzaren eta etorkizunaren sedimentu bat uzteko, ArtxiboAZ zentroaren artxibo digitalaren bidez..

### ***ArtxiboAZ. Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaoren artxibo digitala***

ArtxiboAZ, Azkuna Zentroa ireki zenetik zentroan egon diren ekoizpen artistiko guztiak bildu, sailkatu eta zabaltzen duen Artxibo Digital Berria da.



# PRENTSA DOSSIERRA

Plataforma honen bidez, kartelak, areto-orriak, liburuxkak, aldizkari-orriak, prentsa-txostenak eta ikus-entzunezkoak (argazki, audio-gidak, podcastak edo bideoak) deskargatu daitezke. ArtxiboAZ, Mediateka BBKren katalogoarekin lotuta dago eta artisten eta kultura-eragileen profilen datu-basea du.

Orain arte, 300 jarduera katalogatu dira artxiboan, proiektu osoaren *corpus* culturala osatzen duten 7.100 artxibo baino gehiagoei gehituz. Jardueraren lehen hilabeteetan 22.278 bisita izan zituen eta ia 40.000 dokumentazio-deskarga.



## **APIRILAK 1. LARUNBATA, 12:00ETAN. KUBO BALTZA**

### **HITZARI BURUZKO SORKUNTZA AZN**

#### ***Euskal Herria eta Japoniaren arteko komikigintza trukea***

Literatura-lan bat itzultzeko, hizkuntza eta kultura ezagutu behar dira, bi hizkuntzen arteko baliokidetasunak bilatzeaz harantz doan jarduera baita. Saio honetan, Etxepare Institutuak literatura-sorkuntzaren prozesu honen gakoak aurkeztuko ditu, komikien itzulpenaren bidez.

Saioan parte hartzen dute Hiromi Yoshidak, *Black is Beltz*aren itzultzaileak, Koro Murok, Harrieten editoreak eta Joseviskyk (Joseba Larratxe), komikigileak. Ainara Azpiazu – Axi ilustratzailea moderatzailea da.

### **JOSÉ RAMÓN AIS**

#### ***Prospettiva (Caniche, 2023)***

José Ramón Ais (Bilbo, 1971) artista bisualak *Prospettiva* aurkeztuko du, saiakera fotografiko bat, zuhaitzen lerrokaduraren prototipo gisa artikulatua, naturak erronka ekologikoen aurrean espazio publikoaren eraikuntzan duen zereginari buruz hausnartzeko eta boterearen irudikapenean duen erabilera aztertzeko.

José Ramón Aisen lanak paisaiaren eraikuntzarekin eta irudikapenarekin lotutako kontzeptuak ditu aztergai. Naturari buruzko kontakizunak, ideologiak, desioak eta utopiak proiektatzeko erabiltzen diren lotura emozionalak eta moduak aztertu nahi ditu.

Praktika artistikoen egonaldia egin du Azkuna Zentroan, Habanako Artista x Artista programarekin lotuta; 2021ean Zentroan erakusgai izan zen *Roma Akademia* erakusketan parte hartu du; eta *Baso Bidaariak / Bosques viajeros* zuhaitz-instalazioa aktibatu zuen terrazan, AZren Prototipoak Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Bienalaren azken edizioan.

## **JARDUERA OSAGARRIAK**

### **MARTXOAREN 20TIK 27RA/BILBOKO KALEAK**

### **MARTXOAREN 28TIK APIRILAREN 1ERA/AZKUNA ZENTROA**

**Mama Crea**

***Desiderata***



# PRENTSA DOSSIERRA

*Desideratak* hausnarketa bat proposatzen du zainketen garrantziari buruz, irakurtzeko eta idazteko espazioak eta objektuak zaintzeko esperientziaren bidez.

*Desiderataren* jatorria Gutun Zuria Bilbao ekimenaren azken edizioan dago. Azkuna Zentroko Letren Nazioarteko Jaialdia. Bertan, liburutegi ibiltari bat Bilboko hainbat lekutara joaten zen, jaialdiaren komunikazio-estrategiaren barruan.

Oraingo honetan, anbulantzia batek zeharkatuko ditu Bilboko kaleak Gutun Zuria Bilbao baino lehenagoko astean, eta liburuen ospitaleratzea Atrioan irekiko da, Zinemaldiko arratsaldero, 18:00etatik 19:30era bitartean.

Martxoaren 20tik 27ra

11:00 - 13:00. Bilboko hainbat gune

Martxoaren 28tik apirilaren 1era

18:00 - 19:30

Kulturen Atria

Sarrera dohainik

## **ASTEAZKENA, MARTXOAK 29 17:00-19:00 MEDIATEKA BBK**

### ***Testua tenkatu***

Escrito a lápiz argitalpen-laboregiko Desireé Rubio artistak emandako tailer hau testuaren tentsioaren inguruan garatzen da, liburuan hari bidez esku hartuz. Brodatzea baliabide bat da testu bat berrirakurtzeko, azpimarratzeko eta aztertzeko. Hariak zabaldu egiten dira emakumeen irudiak dituzten liburu-azaletan; elkarrizketak ehuntzen dituzte bi libururen artean; testua zeharkatzen dute, azpimarratuz; orriak tenkatzen dituzte arku-forman; eta hitz-konstelazioak brodatzen dituzte poemetan. Horrela, testua tenkatzeko moduak jorratzen dira, eta, amaitzeko, irakurketa performatiboa egiten da parte-hartzaileekin, liburu batean brodatutako azpimarratuak gainjarriz.

Tailer hau bereziki zuzenduta dago irakurketa-klubei eta idazketan, edizioan, literaturan, kultura bisuarean eta antzekoetan interesa duten pertsonen.

## **ASTEAZKENA, MARTXOAK 29. 18:30 GALERÍA MEDIATEKA**

**Andrea Ganuza, Charlotte Gosselin, Clara Chotil**

***¡Hay caldo!***

**Komikiaren Nazioarteko Egonaldiaren erakusketa**

Martxoaren 29an, Gutun Zuria Bilbao. Letren Nazioarteko Jaialdiaren barruan, ¡Hay Caldo! erakusketa jarriko da martxan. Andrea Ganuza, Charlotte Gosselin eta Clara Chotil artisten proiektuak aurkeztuko ditu, Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaok, Quebec-eko Maison de la Littérature-k eta Angulemakoko Cité Internationale de la Bande Dessinée et de l'image-k bultzatu duten Komikiaren Nazioarteko Egonaldiaren esparruan.



¡Hay Caldo! erakusketan, su motelean egindako hiru istorio daude. Prozesuaren fase desberdinetan dauden hiru "protoliburu". Batera prestatuta, osagai batzuk behin eta berriz etortzen dira ahora, tipula eta baratxuri erregosiak etxean egindako gisatu batean bezala. Beste osagai batzuk berritzaileak edo minak izan daitezke: Arriskutsua al da gorri gehiegi julianan? Grafitozko marra horiek gehiago prestatu ahal dira? Ondo al dago lerroaren eta orbanaren arteko kontraste hori, edo hobeto lotu beharko litzateke irin pixka batekin, agian? Hau ez da komiki tradizional bat, zapore berrien egosketa baizik.

## ANDREA GANUZA

*Atraviésame*

Eleberri grafiko hau 2017 eta 2020 bitartean Medellin hirian (Kolonbia) gertaleku duten istorio laburren bilduma gisa aurkezten da. Esperientzia pertsonaletik kontatuta, sentazioen eta poesiatik hurbil dagoen estilo baten bidez, gonbit egiten digu inguratzen gaituenaren eragina hartzera, gizabanakoen eraldaketa lortu nahian.

## CHARLOTTE GOSSELIN

*Our relapses*

Proiektu hau narrazio poetikoaren, elkarrizketen eta marrazkien artean dabil, eta sentikortasunez lantzen ditu hainbat gai: adikzioak, baterako mendekotasuneko harremanak, laguntza-taldeak eta susperraldia. Bere bikotea salbatu nahian bere buruaz ahaztu eta gaixotu den narratzaile bati jarraituko diogu. Bere begien bidez, bi pertsonaiek ahalegina egingo dute bidea aurkitzeko orekarantz eta susperraldirantz jotzeko.

## CLARA CHOTIL

*Tehoka*

Dourados (Brasil) lurraldeko historia erakusten duen ikerketa dokumental batetik sortutako fikzioa da Tehoka, bi familiaren kontakizun gurutzatuaren bidez eratua. Ipar-ekialdeko kolonoen ondorengoa den Valdir eta kaiwá militante gaztea den Ceciliaren arteko ibilerak eta liskarrak erakusten ditu. Kontakizun honek oraintsuko kolonizazio baten istorioan murgiltzen gaitu: hasiera konplexukoa, eta Brasilgo eraikuntza nazionalean ardaztua, horren ondorioek lurralde nazionala gainditzeko baitute gaur egun.

## **OSTEGUNA, MARTXOAK 30. 11:00-12:00 KUBO BALTZA**

***Topaketa / elkarrizketa: "Liburu" kontzeptua jorratzeko beste modu batzuk. Ertzetatik editatu***

Berridaztea, desitxuratzea, brodatzea eta birziklatzea teknika errepikakor gisa. Desireé Rubio artistak Escrito a lápiz proiektuaz hitz egingo du argitalpen ez-tradizionaleko laborategi gisa, eta objektu-liburu, artista-liburu, objektu performatibo eta erreakzio poetikoko objektuez ere. Irakurtzea eta berrirakurtzea. Testuaren tentsioa liburuan hari bidez esku-hartuz erakusten da.

Tailer hau bereziki zuzenduta dago idazmenarekin edo ikus-entzunezko komunikazioarekin lotura duten helduei, eta literatura eta idazketarekin lotura duten ikasle eta unibertsitateko eragileei.



## **OSTIRALA, MARTXOAK 31. 11:00h. KUBO BALTZA**

**Juan Pablo Villalobosekin topaketa**  
***Historias del Raval***

“*Si tienes una historia, tienes una historia que contar*”. Juan Pablo Villalobos idazle mexikarrak *Historias del Raval*, Miqui Otero eta Júlia Martíekin batera sortutako eta Blackie Books argitaletxeak eta La Central liburu-dendak babestutako literatura-proiektua, eskola-publikoarekin partekatuko du, Ravaleko institutuekin eta elkarteekin elkarlanean.

Historias del Raval 2019an jaio zen Bartzelonako auzo horretan, idazkeran eta narrazio-talantuan interesa duten gazteak identifikatzeko, narratzaile gisa duten prestakuntzan laguntzeko eta lurraldeari (eta bizitzari) buruzko ahots eta begirada berriak antzemateko, ez prentsan ez herrialdeko narratiban agertu ohi ez direnak.

15 eta 17 urte bitarteko nerabeei irekitako literatur lehiaketa da, auzo horretako eguneroko bizitza kontatzeko, immigrazio handiko eta kultur aniztasuneko lekua baita. Aukeratuek Miqui Oterok eta Juan Pablo Villalobosek emandako tailer literario batean parte hartzen dute, beren kontakizunen behin betiko bertsio batera iristeko helburuarekin. Kontakizun horiek ikastaroaren oroitzapenezko edizio batean argitaratzen dira. Bi edizioren ondoren, proiektua hedapen fasean dago eta Florida auzoan egingo da, L 'Hospitalet de Llobregaten.

## **LIBURUDENDAZ**

### **MARTXOAREN 23TIK APIRILAREN 1ERA. KULTUREN ATRIOA**

dendAZ, Azkuna Zentroaren denda, jaialdiaren liburu-denda eta erreferentziako gunea da ekoizpen editorialaren inguruko topaketarako.

LiburudendAZen erosi ahal izango dira Gutun Zuria Bilbaon parte hartzen duten egileen liburuak eta Azkuna Zentroak ateratako argitalpenak, zentroaren programazio-ildoen inguruko erakusketen katalogoek, saiakerek eta liburuak osatzen duten bilduma.

Gainera, arratsaldero, liburuak saltzeko gune bat jarriko da Auditorioko foyerrean, jaialdiko gonbidatuek argitaratutako liburuekin.

## **AUTOREAK**

### **Cristina Rivera Garza**

Egilea, itzultzailea eta kritikaria da. Bere libururik berrienak dira Autobiografía del algodón (Literatura Random House, 2020), El invencible verano de Liliana (PRH, 2021) eta Grieving. Dispatches from a Wounded Country (The Feminist Press, 2020, Sarah Booker-ek itzulia eta 2021eko finalista NBCC Award-en). Bestalde, New and Selected Stories Sarah Booker-ek itzuli eta Dorothy Projectek argitaratu zuen 2022an. Duela gutxi jasotako sarien artean honakoak ditugu: Shirley Jackson Saria 2018, José Donoso Saria 2021, Nuevo León Alfonso Reyes Saria 2021, Mazatlan Saria 2021, Xavier Villaurrutia Saria 2022. 2020-2025ean MacArthur Fellowship lortu zuen. M. D. Anderson jasotako irakaslea, eta

Houstongo Unibertsitateko espainierazko idazketa sortzaileko doktoregoaren sortzailea. Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok antolatutako Gutun Zuria Bilbao. Bilboko Letren Jaialdiaren esparruan, BBK Gutun Zuria Bilbao saria jaso du, hain zuzen, ohorezko makila.

## **Isabel de Naverán (Getxo, 1976)**

Artearen, koreografia garaikidearen eta performancearen arteko gurutzaketa ikertzen du, kuradutoretza-, edizio- eta idazketa-proiektuetan. Denboraren iragaitari eta erabilerari buruzko kezka dago bere ikerketetan, eta gorputzaren transmisioa eta denbora historikoaren kontzeptua praktika iragankor eta iheslarietatik berrikustea du oinarri. Artean doktorea da (EHU/UPV) eta Artea ikerketa-taldeko kidea da Madrilen. Liburu hauen editorea da: *Cuerpo y cinematografía* (José A. Sánchezekin batera, Universidad de Alcalá de Henares, 2008), *Hacer historia. Reflexiones desde la práctica de la danza* (Ediciones Polígrafa, 2010) eta *Lecturas sobre danza y coreografía* (Amparo Écijaekin batera, Editorial Artea, 2013). 2022an lehen liburuak argitaratu zituen egile gisa: *Envoltura, historia y síncope / Bilgarria, historia eta sinkopea* (Caniche editorial) eta *Ritual de duelo* (consonni editoriala). Idazlanaren aldeko apustu sendoa da hori.

## **Anjel Lertxundi (Orio, 1948)**

Filosofia eta Letretan lizentziatua, idazle oparoa, eta, gainera, literatura-kritikaria, kazetaria eta gidolaria da. Euskal Idazleen Elkartearen sortzaileetako bat da, eta elkarteko presidentea izan zen. Euskaltzaina da, narratiba (eleberria eta ipuinak) eta saiakera landu ditu bereziki. 2010ean Saiakera Sari Nazionala eman zioten Eskarmentuaren paperak (Alberdania, 2010) lanagatik. Bi aldiz irabazi du Euskadi Literatura Saria, 1983an Hamaseigarrenean aidanez (Erein, 1983) eta 2001ean Argizariaren egunak (Alberdania, 1998) lanengatik. Halaber, Kritikaren Sari Nazionala jaso zuen 1983an eta 1991n. Bere ibilbide literarioaren aitopen gisa, Rosalia de Castro saria jaso du. Bere azken argitalpenak Itzuliz usu begiak (Alberdania, 2019) eta Desertuan behatxuloa (Alberdania, 2020) dira. Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok antolatutako Gutun Zuria Bilbao. Bilboko Letren Jaialdiaren esparruan, BBK Gutun Zuria Bilbao saria jaso du, hain zuzen, ohorezko makila.

## **Adan Kovacsics (Santiago, Txile, 1953)**

Vienan ikasi zuen, Austrian, eta 1980tik Bartzelonan bizi da, literatura-itzulpengintzan eta idazketan jardunez. Itzultzaile-lanetan Austriako eta Hungariako autoreen lanetan oinarritu da batez ere, hala nola Stefan Zweig, Karl Kraus, Arthur Schnitzler, Imre Kertész eta László Krasznahorkai egileen lanean. Goethe, Franz Kafka eta Rainer Maria Rilke klasikoak ere itzuli ditu. Gainera, saiakerako eta fikzioko liburuen egilea da: *Guerra y lenguaje* (El Acantilado, 2008), *Karl Kraus en los últimos días de la humanidad* (Universidad Diego Portales, 2015), *El vuelo de Europa* (Subsuelo, 2016), *Las leyes de la extranjería* (Subsuelo, 2019). Ángel Crespo Itzulpen Saria (2004), Espainiako Kultura Ministerioaren Itzulpengintza Sari Nazionala (2010), Austriako Literatura Itzulpengintzako Estatu Saria (2010), Hungariako Balassi Itzulpen Sari Nagusia (2017) eta Straelen Itzulpen Saria (2022) jaso ditu. Alemaniako Hizkuntza eta Literaturako Akademiako kidea da.

## **Abraham Boba (Vigo, 1975)**

Lehen etapa autodidaktan hainbat hiri eta musika-proiektutan aritu ondoren (rock bandetatik hasi eta esperimentaletara, Belmonde bikotea kasu), Bartzelonara joan zen, eta piano, konposizio eta moldaketako ikasketak egin zituen. Han argitaratu zuen bakarkako lehen diskoa, *Abraham Boba* (2007) izen eta tituluarekin. 2008an Madrilerara joan zen bizitzera, eta bigarren diskoa kaleratu zuen, *La educación* (2009), eta, ondoren, *Los días desierto* (2011)

iritsi zen. 2013an León Benavente taldea sortu zuen. Bertan, abesti guztiak idazten ditu, eta orain arte lau disko kaleratu ditu: *León Benavente* (2014ko Ojo Crítico saria), 2 (2016ko diskorik onena El País eta ABCren ustez) eta *Vamos a volvernos locos* (2019ko diskorik onena El Paísen ustez, besteak beste); eta *Era* (2022). Musikari edo ekoizle gisa, berrogeita hamar diskotan baino gehiagotan parte hartu du. *Esto no es una canción* (Espasa, 2021) da bere lehen poema-liburua.

## **Miren Narbaiza (Eibar, 1986)**

Musikaria da. 2005ean ekin zion bideari Napoka Iria taldearekin. Orduetik beste hainbat musika ekimenetan ikusi izan dugu: Durmkopters, Dual Split, Joseba B. Lenoir, Perlak besteak beste; 2017tik MICE bakarkako proiektuarekin buru belarri dabil, bere hirugarren eta lan berriena "Lautada" han hemen aurkezten. Gakobeltz Hit Faktoriaren sortzaile ere bada Joseba Baleztenarekin batera, musika sortu, ekoizti eta grabatzeko espazioa.

## **Iban Zaldua (Donostia, 1966)**

Historia irakaslea da, eta donostiar gasteizartua. Ipuingilea da batez ere: *Gezurrak, gezurrak, gezurrak* (Erein, 2000), *La isla de los antropólogos y otros relatos* (Lengua de trapo, 2002), *Itzalak* (Erein, 2004), *Etorkizuna* (Alberdania, 2005, Euskadi Literatura Saria), *Biodiskografiak* (Erein, 2011), *Inon ez, inoiz ez* (Elkar, 2014), *Sekula kontatu behar ez nizkizun gauzak* (Elkar, 2018), *Nola izan garen gauza* (Erein, 2021)... Nobelen autorea ere bada: *Si Sabino viviría* (Debolsillo, 2005) eta *Euskaldun guztion aberria* (Alberdania, 2008). Saiakerak ere idatzi ditu *Ese idioma raro y poderoso* (Lengua de trapo, 2012, Premio Euskadi) edo *Panfletario* (Pepitas de Calabaza, 2021). Bere azken lana *Ipuina engainua da* (Elkar, 2022) narrazio-liburua da.

## **Desirée Rubio De Marzo (Perú, 1979)**

Kazetaria, prentsa editoriala eta diseinuan espezializatua. Bere sorkuntza-lanean ideiak diren liburuetan interesatuta dago. Gehien errepikatzen duen tekniken artean, testu bat berriakurtzeko, azpimarratzeko eta aztertzeko baliabide bezala bordatzea dago. Bere piezak Madrilgo Mad is Mad galerian, Madrilgo Cervantes liburudendan eta enparauetan erakutsi dira; eta Segoviako Kultur Etxean, La Uña Rota argitaletxeak egindako *Inéditas* zikloaren parte bezala. 2005etik Espainiako argitalpen-sektorean dihardu. Madrilgo Lengua de Trapo argitaletxeko kide izan da, baita Península, El Aleph eta Luciérnaga argitaletxeetako ere, Grup 62-ko kide zirenean; Temas de Hoy eta Espasa argitaletxeetako kide izan da ere, Grupo Planetaren barruan zeudenean. Escrito a Lápiz proiektuaren parte da, piezak kontzeptuaren eta liburu objektuaren inguruan sortzen diren proiektuarena. *Reseñas bordadas de libros* atala argitaratzen du hilero El País egunkariko S Moda aldizkarian.

## **Manuel Rivas (La Coruña, 1957)**

Manuel Rivasek jatorriz galizieraz idazten du. El Ideal Gallegon hasi zen ikasten, 15 urte zituela. Informazio Zientziak ikasi zituen Madrilan, eta han Loia aldizkaria argitaratu zuen. Bere poesia lanen artean, *A desaparición da neve* (lau hizkuntzetako edizioa, galizieraz, gaztelaniaz, katalanez eta euskaraz, 2009an) dago. Bost aldiz jaso du Galiziako eta Espainiako Kritikaren saria. Espainiako Narratiba Sari Nazionala jaso zuen *Que me quieres, amor?* filmarengatik, José Luís Cuerdak zinemara eramandako *La lengua de las mariposas* kontakizunarekin. *O lapis do carpinteiro* eleberria 36 hizkuntzatarata itzuli da. 2019an, Ostana (Piamonte, Italia) saria eman zioten ama-hizkuntzako nazioarteko idazleari. Bere lanik



berriena O que fica fora poema liburua da, Galiziako Literatur Sorkuntzako saria 2023. Luzes erreportaje eta kultura alternatiboko hilabetekariaren zuzendarikidea da.

## **Gonçalo M. Tavares (Luanda, Angolako Itsasoz Haraindiko Probintzia, 1970)**

2001etik hainbat literatura-generoetako obrak argitaratu ditu, ia 60 herrialdetan itzuliak izan direnak. Horietako batzuek hainbat sari jaso dituzte, Portugalen, zein beste herrialde batzuetan. Hala nola, *Aprender a rezar na. Era da Técnica* (Mondadori, 2012) lanarekin Prix du Meilleur Livre Étranger 2010 saria jaso zuen (Frantzia), aurretik Robert Musil, Orhan Pamuk, Joh Updike, Philip Roth, Gabriel García Márquez, Salman Rushdie edo Elias Canettiri emandako saria, besteak beste. Nazioarteko sarien artean, nabarmentzekoak dira: Prize Portugal Telecom 2007 eta 2011 (Brasil), Prize Internazionale Trieste 2008 (Italia), Prize Belgrade 2009 (Serbia), Grand Prix Littéraire Européen 2011 (Frantzia).

## **Andrea Ganuza (Iruña, 1988)**

Narrazio grafikoan eta marrazketan oinarritutako bere praktika artistikoan komikigintzaren mugekin esperimentatzen du, arte garaikidearen lengoaietako bat dela uste baitu. Poesiaz betetako begi kritiko batez, bere esperientziak gai sozial, politiko eta emozionalei buruzko informazioa emateko erabiltzen ditu.

## **Clara Chotil (Frantzia – Brasil, 1992)**

Dynamorphe kolektiboa sortu zuen 2017an, eta haren barruan argi-arkitekturak sortu zituen. Eszenografiari eta arte grafikoei dagokienez, zuzeneko proiektzio- eta marrazketa-gailuak garatzen ditu, bereziki F71 konpainia kolektiboarekin elkartu ondoren Lucie Nicolassen Noire eta Songbook ikuskizunak berraktibatu zirenean.

## **Charlotte Gosselin (Quebec, 1966)**

Charlotte Gosselinek marraztu, margotu, animatu, bideoak ekoitzi eta poesia idazten du. Bere sormen prozesua espazio handietan, intimitate txikietan eta bere sentiberatasunean oinarritzen da. Quebecen hainbat erakusketa eta egoitza artistikotan parte hartu du.

## **Uxue Apaolaza Larrea (Hernani, 1981)**

Idazlea eta Historian lizentziadua da. Bere azken liburua *Bihurguneko nasa izan da* (Susa, 2021), Euskarazko Literaturako Euskadi Saria irabazi zuenagatik (2022). *Umeek gezurrak esaten dutenetik* (Erein, 2005) ere argitaratu du, urte batzuk geroago gaztelaniara itzuli zena *Desde que los niños mienten* (Godall Edicions, 2019) izenburuarekin. *Mea culpa* (Elkar, 2011, XII Igartza Saria) eleberria ere idatzi du. Komunikabide askorekin kolaboratu du.

## **Irene Pujadas i Farré (Sant Just Desvern, 1990)**

Bartzelonan bizi den idazle katalan bat da. Butxaca aldizkari, Diari Ara, La Llança eta La Lectora hedabideetan lan egin eta idatzi du, besteak beste. Fikzio literario eta grafikoko Branca aldizkariaren sortzaileetako bat izan zen, eta gaur egun Angle Editorialean egiten du

lan. 2021ean *Els desperfectes* (L'Altra Editorial) argitaratu zuen, Premi Documenta 2020 eta Premi Ciutat de Barcelona 2021 sariak eskuratu zituen.

## **Beñat Sarasola (Donostia, 1984)**

Idazlea eta ikertzailea da. Literatura Teorian eta Literatura Konparatuan doktorea Bartzelonako Unibertsitatetik; gaur egun irakaslea eta ikertzailea da UPV/EHU. Argitalpenen artean, *Bainaren belaunaldia: Ustela, Pott eta Oh! Euzkadi* (Labayru, 2015) nabarmentzen da, Santiago Onaindia bekari esker egina. Idazle gisa, bi poema-liburu ditu argitaraturik, *Kaxa huts bat* (Susa, 2007) eta *Alea* (Susa, 2009), eta eleberri bat ere bai, *Deklaratzekorik ez* (Susa, 2019). Editore-lanetan, Susa argitaletxearen *Munduko Poesia Kaierak* bilduma zuzendu du, munduko poesia garaikide modernorik onena euskarara itzultzen duena.

## **Pol Guasch (Tarragona, 1997)**

Literatura, Teoria eta Kultura Garaikidean masterra (King's College London) du, eta doktoratu aurreko ikertzailea da (Bartzelonako Unibertsitatea), maitasunari eta poetikari buruzko gaiarekin. MACBAko Ikasketa Independenteen Programa egin du, UBko literatura-irakaslea eta kultura-kritikaria izan da eta, gaur egun, La Sullivan kultura-ekoiztetxeko kide da. RAC1, Cadena Ser eta Diari Ara-n aldizka kolaboratzen du. Poesia-liburu hauen egilea da: *Tanta gana* (Labreu, 2018; Premi Francesc Garriga 2018) eta *La part del foc* (Viena, 2021; Premi López-Picó 2020, gaztelaniara itzulia *Ultramarinos*). Bere lehen eleberria, *Napalm en el corazón* (Anagrama, 2021; Premi Llibres Anagrama 2021), hainbat hizkuntzataraz itzuli da. Liburu horrengatik, Premi 42 Revelació en catalán eta Madrilgo Eñe Jaialdian Premio Talento a bordo sariak jaso ditu.

## **Munir Hachemi (Madril, 1989)**

Bere ipuinak fanzine formatuan saltzen hasi zen Lavapiésoko tabernetan, 'Los escritores barbaros' literatura-kolektiboarekin batera. Aurrerago, lehen eleberria argitaratu zuen, *Los pistoleros del eclipse* (Generic, 2014), eta bigarrena ere bai, 废墟, baina azken hau paperean atera zuen eta, Madrilén ez ezik, Granadako kaleetan ere saldu zuen. 2018an *Cosas vivas* (Periferica Ediciones, 2018) argitaratu zuen, eta 2021ean Granta aldizkariak hautatu zuen «gaztelaniazko 25 narratzaile onenen» artean. 2022an *los restos* argitaratu zituen (La Bella Varsovia). Literatura-itzulpenaren plazerak ezagutzen ditu eta, nolabait, lortu zuen doktorego-tesia aurrera ateratzea, Borgesek Espainiako narratibaren izandako eraginari buruz. Antologia batzuetan bere kontakizunak eta poemak agertzen dira; eleberri bat eta ipuin-liburu bat prestatzen ari da. Adorea eta adimena miresten ditu.

## **Leire Bilbao (Ondarroa, 1978)**

2006an eman zuen jautzia literatur mundura *Ezkatak* (Susa, 2006) bere lehen poema liburuarekin. Ondoren etorri ziren *Scanner* (Susa, 2011), *Entre escamas* poema liburu elebiduna (Marisma, 2018) eta *Etxeko urak* (Susa, 2020). Bestalde, Nijolè Miliauskaitè-ren obra eman du euskarara (*Munduko poesia kaierak*, 2016), baita beste zenbait poeta garaikideren poemak ere. Haur eta gazte literaturari dagokionez hogeitau lanetik gora argitaratu ditu. Azken sarien artean, 2017 Haur eta Gazte literaturako Euskadi saria eta 2019 Kirico saria nabarmentzen dira, *Xomorropoemak eta beste piztia batzuk* (Pamiela, 2016) poema liburuarengatik eta 2022ko Haur eta Gazte Literaturako Euskadi Saria *Barruko hotsak* (Pamiela, 2021) lanagatik. 2021eko Lauaxeta Poesia saria jaso zuen *Etxeko urak* (Susa, 2020) poema liburuak. Eta *Aguas madres* bezala argitaratu da La Bella Varsovia argitaletxean 2023ko otsailan.

## Sara Torres

Alexander von Humboldt doktoretza ondoko beka batekin Passauko Unibertsitateari lotua. Eskritura feministak eta queerrak ikertzen ditu, borondatezkoak ez diren gorputz-eraldaketak dakartzaten diagnostiko medikoen ondoren. Londresko Queen Mary Unibertsitatean doktorea. Bere tesiak izenburu hau du: *The Lesbian Text: Fetish, Fantasy and Queer Becomings*. Methodologies Kritika Masterra Kings College Londonen.

*La otra genealogía* (Madril: Torremozas) lehen libururekin Gloria Fuertes Poesia Sari Nazionala irabazi zuen. *Conjuros y Cantos* ere argitaratu du, Kriller 71 argitaletxeak argitaratua. La Bella Varsovia argitaletxearekin *Phantasmagoria eta El ritual del baño* argitaratu ditu. Bere lan teoriko-sortzailea desioaren, gorputzaren eta diskurtsoaren analisian zentratzen da, psikoanalisia, materialismo berriak eta queer ikasketak lotzen dituen aparatu kritiko feminista eta diziplinarteko baten bidez. *Lo que hay* (Reservoir books) eleberriak liburu-saltzaileen urteko errebelazio saria jaso du.

## Jon Gerediaga (Bilbo, 1975)

Antropologia kulturean doktorea eta filosofiako irakaslea da 2023tik. Hainbat poema-liburu idatzi ditu, jatorriz euskaraz argitaratuak eta egileak berak gaztelaniara itzuliak: *Fitola Balba, Karpuki Tui* (Pamiela, 2004); *Jainkoa harrapatzeko tranpa* (Pamiela, 2007), Kritikaren Sariaren irabazlea eta Poesia Sari Nazionalaren finalista; *Zentauro-hankak* (Pamiela 2011); *Argia, lurra, zuhaitza, zerua* (Pamiela, 2015, Lauaxeta Sariaren irabazlea; *La luz, la tierra el árbol el cielo* (Pamiela, 2017); *Urtaroak eta zeinuak* (Pamiela, 2019); *Natura berriak* (Pamiela, 2020, Kritikaren Saria, Xabier Lete Saria eta Lauaxeta Saria; eta *Nuevas naturalezas* (Pre-textos, 2021). 1999tik eta hamarkada batez, F.T.I.-Antzerkiola Imaginarioa antzerki-taldeko kide izan zen. Hainbat antzerki-testuren sorkuntzan parte hartu du estreinatu edo argitaratu arte, euskaraz zein gaztelaniaz. Bere azken testuak honako hauek izan dira: *Etxekoak* (Huts teatro, 2015); *Dama* (Susa, 2022); *Marmarra* (Atx, 2022) eta *Dar de beber al Minotauro* (Khea Ziater 2022).

## Iñigo Martínez Peña (Gasteiz, 1975).

Batxilergoko filosofia eta psikologia irakaslea da, Loiuko Lauro ikastolan 2000tik aurrera. Filosofia eta pentsamendu kritikoa gizarteratzeko lanean dabilen Agora filosofia elkarteko kidea. *Filosofiaren defentsak* (Erein, 2017) liburuaren koordinatzailea eta *Mandamentu hipermodernoak* (Elkar, 2021) zein *Pantailen garaipena* (Elkar, 2023) liburuko idazlea. Hainbat komunikabideetan kolaboratzailea izan da: Euskadi Irratia, Jakin, Prest... Egun *Berria* egunkariko iritzigile moduan dabil. Aldi berean, formakuntza psikoanalitikoan parte-hartzen du Bilboko Antena Klinikoa.

## Garbiñe Ortega

Zinema-kuradorea, irakaslea eta ekoizlea. Bere lan kuratoriala Lincoln Centerreko Film Society (NY), Tate Modern, Vienako Film Museum, Pacific Film Archive, Washingtingo National Gallery of Art edo Bartzelonako Kultura Garaikideko Zentroan erakutsi du nazioartean. Dokumental Ibiltarien Birako programazio zuzendarikidea (Mexiko), Punto de Vista jaialdiko zuzendari artistikoa (2018-2021) eta ARTIUMeko Z Aretoko komisarioa (2021-2022) izan zen. Nicolas Pereda, Lois Patiño, Matías Piñeiro edo Virginia García del Pinoren filmak ekoitzi ditu. Hainbat libururen editorea izan da, besteak beste, Jonathan Schwarz: *To Light, To Love, To Time* (2019), *Meditaciones sobre el presente: Ute Aurand, Helga Fanderl, Jeannette Muñoz, Renate Sami* (2020) edo *Cartas como películas* (2022).

## **Juan Pablo Villalobos (Mexiko, 1973)**

Sei eleberriren egilea da: *Peluquería y letras* (Anagrama, 2022), *La invasión del pueblo del espíritu* (Anagrama, 2020), *No voy a pedirle a nadie que me crea* (Herralde saria 2016) (Anagrama, 2016), *Te vendo un perro* (Anagrama, 2015), *Si viviéramos en un lugar normal* (Anagrama, 2012) eta *Fiesta en la madriguera* (Anagrama, 2010). Horrez gain, *Yo tuve un sueño*. El viaje de los niños centroamericanos a Estados Unidos (Anagrama, 2019) kronika eta *Un viaje cósmico a Puerto Ficción* (Kultura ekonomikoaren funtsa, 2022) haurrentzako liburua idatzi ditu. Hogei hizkuntzatarara itzuli da bere lana. Gaur egun Bartzelonan bizi da, eta, bertan, literatura-tailerrak ematen ditu eta idazketa- eta literatura-irakaslea da Pompeu Fabra Unibertsitatean eta Kataluniako Zinema eta Ikus-entzunezkoen Goi Eskolan. Brasilgo hainbat narratzailearen lanak itzuli ditu. Miqui Oterorekin batera, nerabeentzako idazketa-proiektu bat koordinatzen du Raval auzoan.

## **Elvira Navarro (1978)**

*La ciudad en invierno* (Caballo de Troya, 2007), *La ciudad feliz* (Radom House, 2009) eta *Los últimos días de Adelaida García Morales* (Radom House, 2016) liburuak eman ditu argitara. *La trabajadora* (Radom House, 2014) nobela aitzindaria da, krisiak eragindako aldaketa sozial eta ekonomikoen ondorioz egungo subjektuaren zatiketa kontatzen. Espainierazko literatura garaikidearen erreferentziako ahotssetako bat da. Jaén Nobela Saria eta Kritikaren Andaluzia Saria jaso zituen, eta 2010ean, Granta aldizkariaren hogeita hamabost urtetik beherako espainierazko 22 narratzaile onenen zerrendan sartu zen. Bere aurreko liburua, *La isla de los conejos* (Radom House, 2019), atzerriko literaturako National Book Award sarirako izendatu zuten 2021ean. Ingelesera, frantsesera, suedierara, italierara, japonierara, serbierara, koreerara eta turkierara itzuli dute. *Las voces de Adriana* (Radom House, 2023) eleberria argitaratu berri du.

## **Iván de la Nuez (La Habana, 1964)**

Saiogilea, kritikaria eta komisarioa da. Bere liburuen artean, *La balsa perpetua* (Casiopea, 1998); *El mapa de sal* (Preiferia, 2010); *Fantasía Roja* (Debolsillo, 2010); *Nunca real / Siempre verdadero* (Azkuna Zentroa – Alhondiga Bilbao, 2021) eta *Posmo* (Cosonni, 2023). Bere erakusketen artean, *La isla posible*; *Inundaciones*, *Parque humano*; *De Facto*. *Retrospectiva de Joan Fontcuberta*; *Atopía*. *El arte y la ciudad en el siglo XXI*; *Iconocracia*; *Pintar contra el tiempo*; eta *Nunca real / Siempre verdadero*.

## **José Ramón Ais (Bilbo, 1971)**

*Bilbo, 1971*. *Euskal Herriko Unibertsitatean Arte Ederretan lizentziatua, lorezaintzako diseinu-ikasketak ere egin ditu prestakuntza osatzeko*. Bere lana paisaiaren eraikuntzarekin eta irudikapenarekin lotutako kontzeptuei buruzko hausnarketa eta azterketatzat har daiteke. Naturari buruzko kontakizunak, ideologiak, desioak eta utopiak proiektatzeko erabiltzen diren lotura emozionalak eta moduak aztertu nahi ditu. Bere lan-prozesuetan argazkia eta irudia postproduzitzeko teknikak, landa-lana, ikerketa historikoa eta lan egiten duen espezieen laborantza eta behaketa uztartzen dira.

## **Katixa Agirre (Gasteiz, 1981)**

Euskal idazlea da. Bi ipuin liburu argitaratu ditu. *Sua Falta* Zaigu (Elkar, 2007) eta *Habitat* (Elkar, 2009), eta ume zein gazteentzako hainbat istorioen egilea da. 2015ean bere lehenengo eleberria argitaratu zuen *Atertu arte* Itxaron (Elkar), gazteleraz ere argitara eman dena *Los turistas desganados* izenburupean (Pre-textos, 2017). 2018an, Augustin Zubikarai

bekari esker, bere azken eleberria argitaratu zuen: Amek ez dute (Elkar), gazteleraz Las madres no (Tránsito, 2019) bezala argitaratu zena eta dagoeneko beste zazpi hizkuntzataraz itzuli dena. Mar Coll zinegilea eleberri hori adaptatuko du zinera. 2022an bere azken eleberria argitaratu zuen: Berriz Zentauro (Elkar), gazteleraz eta katalanez ere argitaratua. Bilbon bizi da eta EHUko irakaslea da, Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate sailean.

## **Eider Rodríguez (Errenteria, 1977)**

Idazlea da. Publizitate eta Zinema ikasketak egin zituen eta Literaturan doktore da. Editore eta gidoilarilanean ibilitakoa, gaur egun irakaslea da Euskal Herriko Unibertsitateko Hizkuntzaren eta Literaturaren didaktikaren sailean. Batez ere ipuingintzan nabarmendu da: 2004an *Eta handik gutxira gaur* (Susa, 2004) kaleratu zuen eta ordudanik beste hiru liburu argitaratu ditu: *Haragia* (Susa, 2007), *Katu jendea* (Elkar, 2010) eta *Bihotz handiegia* (Susa, 2017). 2021ean lehen eleberria argitaratu zuen *Eraikuntzarako materiala* (Susa, 2021). Bere ipuin liburuak gaztelaniara itzuli ditu: *Y poco después ahora*, *Carne*, *Un montón de gatos* eta *Un corazón demasiado grande* eta *Material de construcción* izenburuenpean. Laster, Pilar Palomero zuzendariak *Los destellos* izenburua izango duen filma egingo du *Bihotz handiegia* errelatotik abiatua.

## **Bob Pop (Madril, 1971)**

Telebistan, irratian (Hoy por Hoy, Cadena Ser) eta hedabide idatzietan egindako lanagatik gehien jarraitutako kultura- eta gizarte-kazetarietako bat da, horien artean, La Mareako zuzendaritzako kide gisa egindako lana nabarmenduz. Hainbat liburu argitaratu ditu, besteak beste, *Mansos* (Caballo de Troya, 2010; Alfaguara, 2021), *Un miércoles de enero* (Turner, 2018) eta *Días ajenos* (Somos libros, 2019) egunkariaren bi liburukiak. Azken hauek, egileak antzerki-bakarrizketa moduan moldatu ditu. Maricón perdido telesail autobiografikoaren sortzaile eta gidoilaria da. TNT kanala estreinatu zen 2021eko ekainean, eta Ondas saria eta GLAAD AWARD saria jaso ditu.

## **Alba Carballal (Lugo, 1992)**

Idazlea eta arkitektoa da. *Tres maneras de inducir un coma* (Seix Barral, 2019) eleberria, Sortzaile Gazteentzako Antonio Gala Fundazioan idatzia, urteko opera primarik onena izendatu zuten El Culturalen, eta Espainiako Narratibaren Dulce Chacón XV. Sariaren finalista ere izan zen. Late Motiv eta LocoMundo programetan eta Días mejores (Amazon Prime Video) telesailean gidoilari aritu da, eta Esto no es una serie programan gidoi-koordinatzaile. 2019 eta 2021 artean zutabegilea izan zen Vocento taldearen eskualdeko egunkarietan. Darío Adantirekin batera, 'El milenarismo' podcast-a zuzentzen du. 2021eko irailean haurrentzako lehen albuma argitaratu zuen, *Tu hogar en cualquier sitio* (Flamboyant, 2021), arkitektura, etxe eta giza bizimoduak buruzko, eta txinerara, koreerara eta arabierara itzuli dute. Gaur egun gidoilari gisa lan egiten du Alea Media ekoiztetxean, eta bere bigarren eleberria 2023ko maiatzean argitaratuko da.

## **SARREREN SALMENTA**

Jaialdirako sarrerak martxoaren 7tik aurrera eros daitezke AZ info-n eta [gutunzuria.azkunazentroa.eus](http://gutunzuria.azkunazentroa.eus)

**Elkarrizketak:** 3€ / 2€ AZ txartelarekin

# PRENTSA DOSSIERRA

**Abraham Boba. *Esto no es una canción*:** 12€ / 10€ AZ txartelarekin

**Tailerra *Izenburua tenkatu*:** 5€

PREZIO BEREZIAK: kontsultatu webgunean

SARREREN SALMENTA: [gutunzuria.azkunazentroa.eus](http://gutunzuria.azkunazentroa.eus) | Az Info: martxoaren 7tik 27ra |  
liburudendAZ: martxoaren 28tik apirilaren 1era



## KOMUNIKAZIO KANALAK

Gutun Zuria Bilbok [gutunzuria.azkunazentroa.eus](http://gutunzuria.azkunazentroa.eus) webgune berezia du edizio honetan, Zinemaldiari buruzko informazio guztiarekin, eguneroko programarekin, parte-hartzaileen biografiekin eta jardueren egutegiarekin.

Horrez gain, Gutun Zuriak Azkuna Zentroko **sare sozialetako** kontuak erabiltzen ditu **#GutunZuria2023 #GutunZuriaBilbao**:

- <https://www.facebook.com/AzkunaZentroa>
- <https://twitter.com/AzkunaZentroa>
- <https://www.instagram.com/azkunazentroa/>

### PRENTSA ARETOA

Iparragirre aretoa. Kulturen Atria. Orduetgia: 10:00-19:00h

### GUTUN ZURIA BILBAO KONTAKTUA:

[prensa@azkunazentroa.eus](mailto:prensa@azkunazentroa.eus) / Tel: 626 815 610 / 944 015 306 /  
azkunazentroa.eus

## KOLABORATZAILEAK

Fundación BBK / Etxepare Euskal Institutua / Metro Bilbao

